



Eskola kirola – 2025-2026ko lehiaketa araudia

SASKIBALOIA

1. JOKALEKUA

Jokalekua angeluzuzena, laua eta gogorra izango da, eta ezin du oztoporik eduki. Neurri hauexek izango ditu:

	Gehienez	Gutxienez
Benjaminak eta kimuak	25,60 m x 15 m	20 m x 12 m
Haurrak eta kadeteak	28 m x 15 m	26 m x 14 m

Benjaminak (3x3) jokalekuaren erdi batean jokatuko dituzte partidak, salbuespenik gabe. Jokaleku batean benjaminen partida bi jokatu ahaliko dira batera, jokaleku erdi banatan. Neurriak gehienezko eta gutxienezko horien artean egon daitezke, baina betiere proportzioa egon behar da.

2. - SASKIA

Saskiak bi osagai ditu: taula eta uztaiak. Taulak gainazal leuna izango du eta egur trinkoz edo material garden egoki batez eginda egongo da. Neurriak hauexek izango dira: 1,29 metro alde horizontalean eta 0,90 metro goitik beherakoan benjamin eta kimuen mailetarako, eta 1,80 metro alde horizontalean eta 1,05 metro goitik beherakoan haur eta kadeteen mailetarako.

Uztaiak burdina trinkozkoak izango dira eta 45 cm-ko barne diametroa izango dute. Laranja kolorez pintatuta egongo dira. Uztaien metalak gutxienez 17 mm eta gehienez 20 milimetroko diametroa eduki behar du. Azpiko ertzean kako txikiak edo antzeko beste gailuren bat eduki ditzakete, sarea eskegi ahal izateko. Taulari gogor lotuta egon behar dira, horren bi erpinetatik distantzia berera, eta lurretik 2,60 metrora, plano horizontalean benjamin eta kimuen mailetarako, eta lurretik 3,05 metrora, berriz, haur eta kadeteen mailetarako.

	TAULA	Uztaitik lurrerainoko distantzia
Benjaminak eta kimuak	1,29 m x 0,90 m	2,60 m
Haurrak eta kadeteak	1,80 m x 1,05 m	3,05 m

3. - BALOIA

Baloia esferikoa izango da, eta laranja kolore homologatu batekoa. Bere kanpoko azala larruz, gomaz edo material sintetikoaz egina izango da.

Benjaminak eta kimuak	5 tamainako baloia
Haur eta kadeteak neskak	6 tamainako baloia
Haurrak 1. urtea mutilak	6 tamainako baloia
Haurrak 2. urtea mutilak	7 tamainako baloia
Kadeteak mutilak	7 tamainako baloia

4. – ENTRENATZAILEA

Taldearekin izena emandako entrenatzaile-hezitzaileak nahitaez egon beharko du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die jokalekuaren albotik, eta jokalariak aldatzeko eta hutsarteak eskatzeko ardura du.

Jokalarien, ordezkoen eta beraiekin daudenen portaeraren erantzule ere bada.

Arauz kontrako defentsak egiten badira, entrenatzaileak izango du horren erantzukizuna eta hari falta teknikoa seinalatuz zigortuko da. FIBAren arauen arabera zigortuko da falta teknikoa.

Benjaminen (3x3) lehiaketan, talde bakoitzak bere entrenatzailea izango du. Dena den, baimenduta dago elkarren ondoan dauden jokalekuetan ordu berean jokatzeko duten bi benjamin taldek entrenatzaile bera izatea.

5. –ARBITROEK ETA IDAZKARIEK BETE BEHARREKOAK ETA GUTXIENEO ADINA:

Arbitroek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Gutxieneko adina:
 - Gutxienez hamalau urte eduki behar dira eskola kiroleko saskibalo partidetan idazkari aritzeko.
 - Hamasei urte eduki behar dira benjamin, kimu eta haur kategorietako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
 - Hemezortzi urte eduki behar dira kadete kategoriako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
 - Arbitro federatuaren titulu ofiziala edukiz gero, hamasei urte behar dira eskola kiroleko zeinahi kategoriako saskibalo partidetan arbitro aritzeko.
- Eskola lizentzia eduki behar dute.

6. – IZENA EMANDAKO KIROLARIAK

Eskolako saskibaloian izena emanda dauden kirolariek ezingo dute saskibaloia federatuko lizentziarik izan.

Jokalariak honelaxe daude antolatuta kategorietan:

KATEGORIA	ADINA	GENEROA
Benjaminak 1. urtea 3x3	2017	MISTOA
Benjaminak 2. urtea 3x3	2016	MISTOA
Kimuak 1. urtea 4x4	2015	FEMENINOA/MASKULINOA/MISTOA
Kimuak 2. urtea 5x5	2014	FEMENINOA/MASKULINOA/MISTOA
Haurrak 1. urtea	2013	FEMENINOA/MASKULINOA/MISTOA
Haurrak 2. urtea	2012	FEMENINOA/MASKULINOA/MISTOA
Kadeteak	2010-2011	FEMENINOA/MASKULINOA/MISTOA

Talde mistoak

- Partaidetza ibilbideko lehiaketetan talde mistoek parte hartu ahal izango dute.
- Partaidetza ibilbideko lehiaketen ondorioetarako:
 - Maskulinoztat joko da gehienez ere kirolari neska bat dagoen taldea. Era berean, femeninoztat hartuko da gehienez ere kirolari mutil bat duen taldea.
 - Talde misto gisa onartuko dira sexu bakoitzeko gutxienez bi partaidek osatutako taldeak, eta osaera horri denboraldi osoan eutsi beharko diote.
 - Partida guztietan bi sexuetako kirolariek parte hartu beharko dute.
- Talde mistoentzat lehiaketa bat antolatu ezin den kasuetan, lehiaketa horiek emakumezkoen edo gizonezkoen lehiaketetan sartuko dira, kideen genero gehiengoaren arabera. Ligako titulua eskuratu ahal izango dute, baina ez Euskadiko Eskola Jokoetan egon.

Kirolari transexualak

- Eskola ume transexualak kirolaritzat hartuko dira, beren sexu- edo genero-identitatearen arabera, sentitzen duten sexuarekin edo generoarekin bat datorrena.
- Ez dira zenbatuko ekipo mistoen ondorioetarako.



Kimuen edo haurren kategorietako taldeen barruan 1. eta 2. urteko kirolariak badituzte, taldeak 2 urteko kategorian eman behar du izena, salbu eta hurrengo paragrafoan ezarritako salbuespena eta baldintzak betetzen badira.

Adinari dagokion kategoria baino beheragoko batean parte hartu ahal izango dute kirolariek, baldin eta Arabako Foru Aldundiaren baimena lortu badute. Betekizun hauek bete beharko dira joko taldearen arabera (benjamin kategorian izan ezik):

Errendimendu taldeak:

- Goragoko kategoriako kirolari bati talde berean jokatzeko baimena ematen zaio.
- Baimendutako jokalariek ez du emango jokoan partidaren guztirako iraupenaren ehuneko 50 baino gehiago.
- **Goi mailako kirolariak dituzten taldeek ezin izango dute liga titulua eskuratu.**

Partaidetzako taldeak:

- Goragoko kategoriako kirolari bati edo gehiagori talde berean jokatzeko baimena ematen zaio.
- Ezin izango dute aldi berean jokatu, inolako salbuespenik gabe.
- Baimendutako jokalariek ez du emango jokoan partidaren guztirako iraupenaren ehuneko 50 baino gehiago.
- Ligako titulua eskuratu ahal izango dute, baina ez Euskadiko Eskola Jokoetan egon.

Horretarako kategoriak bat datoz artikuluko honetako taulan ezarritakoekin.

Apartatu hau ez betetzea arauz kontrako jokalarik zerrendatzat hartuko da.

Parte hartzeko ibilbidean, kirolaren arloko eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailak, salbuespen gisa, beheragoko kategoria batean parte hartzeko eskaerak baimendu ahal izango ditu, nahiz eta aurrean ezarritako baldintzak ez bete, Arabako udalerrri edo kuadrilla jakin batzuetan taldeak egiteko zailtasunak badaude desgaitasuna edo premia bereziak dauzkaten kirolariak daudelako.

5x5eko lehiaketetan parte hartzeko, gutxienez 8 kirolariren izena eman beharko da, eta gehienez 15ena.

Partida bat hasteko, arauan ezarritako gutxieneko kirolariek egon beharko dute jokalekuan. Partidaren hasieran kirolarien kopurua arauan ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada, partida jokatuko da. Aurkako taldeak erreklamazioa egiten badu, galdutzat emango zaio partida araudia betetzen ez duen taldeari, hamar eta hutseko emaitzaz. Erreklamazio hori gauzatu beharko da partida amaitzean, eta akta sinatu beharko da, erreklamazioa egiten duen taldearen entrenatzaileak apelazioa egiten badu.

Erreklamazioa partida hasi aurretik egin beharko da. Apelazioa egonez gero, erreklamazioa egiten duen taldeko entrenatzaileak akta sinatu beharko du.

Gehienez ere 12 kirolarik eman dezakete izena aktan.

Benjamin 3x3 lehiaketarako arau hauek ezartzen dira:

- Gutxienez 5 kirolarik eman behar dute izena.
- Saskibaloia, benjaminak 3x3 modalitatean inskribatutako taldeek parte hartu ahal izango dute, eta saskibaloia lehenetsitako kirola den B eta C kirol jarduera anitzeko modalitateetan inskribatutako taldeek ere bai.
- Akta egingo da. Entrenatzaileek lizentzia aurkeztu beharko dute partida hasi aurretik.
- Arbitroak kirolarietako kategoriei dagozkien lizentziak dituztela egiaztatu beharko du.
- Gorabeherarik izanez gero, edo partida egiten ez bada, horren berri eman beharko zaio federazioari, posta elektronikoz bidez, arauz tratatzeko.
- Erakunde, klub edo ikastetxe baten izenean emango dute izena jokalariek.
- Adibidea: Corazonistasek 15 umeren izena eman du, 3 taldetan. Adibidea: San Viatorrek 11 umeren izena eman du, 2 taldetan.
- Bi kategoria egongo dira: 1. urtea eta 2. urtea, mistoak.
- Taldeek taldearen izenean jarri behar dute kategoria. San Viator 1A (1. urtea) Corazonistas 2B (2. urtea)
- 2. urteko kirolarien % 50 edo gehiago dituzten taldeek benjamin 2. urteko kategorian jokatuko dute.
- Erakundeek astero aldatu ahal izango dituzte taldeak, baina kirolari berak ezin izango du jokatu talde bitan.
- Saskiratzeen ondoren, jokaleku erdiko zirkulutik aterako da beti. Lehenengo pasea libre da beti.
- Falta eta arau hausteen ondorengo sasea falta edo arau haustea gertatu den lekutik hurbilen dagoen puntutik egingo da. Hondoko saseetan, lehenengo pasea zonatik kanpo egingo da beti. Lehenengo pasea libre da beti.
- Partida guztietan arbitroa egon behar da eta akta egin behar da, beti.
- Baloia berreskuratu ondoren, hiru jokalaria erasotzaileak eremutik irten behar dira beste eraso bati ekin aurretik.

KIMUAK 4x4 lehiaketarako arau hauek ezartzen dira:

- Gutxienez 7 kirolarik eman behar dute izena.
- Joko zatien tanto kopurua izango da puntu bat batzea irabazitako zati bakoitzeko. Irabazitako puntuekiko berdinketa gertatuz gero (3-3), talde bakoitzak sei zatietan guztira batutako puntuak hartuko dira kontuan.
- Aurreko ataletan berdinketarik gertatuz gero, 4 minutuko luzapena izango da.
- Kirolari guztiek lehen **bost** aldietako **bitan** denbora osoan jokatu beharko dute eta bitan denbora osoan atseden hartu, 11 edo 12 kirolari dituzten taldeetan izan ezik: horietan, sei aldietako bitan denbora osoan jokatu beharko dute eta bitan denbora osoan atseden hartu.



7. - PARTIDEN IRAUPENA

Benjaminak 3x3

Partidak lau zati izango ditu eta laurden bakoitzak hamabi minutu. Laurdenen artean minutu bateko atsedena izango da eta zatien artean, gehienez, bi minutukoa. Partidan zehar ez da denbora geldituko.

Arbitroak ezin du inoiz baloirik ukitu baloia jokoan jartzeko, falta pertsonalen ondoren salbu. Gainerako joko egoeretan (urratsen araua haustea, eremuarena, alboz kanpoak eta abar), arbitroak ez du baloirik ukitu beharko.

Kimuak

Partidak bi zati izango ditu eta zati bakoitzak zortzi minutuko hiru seiren. Seirenen artean minutu bateko atsedena izango da eta zatien artean, gehienez, bost minutukoa. Partida denbora jarraituan jokatu da, 6. zatiko azken minutua izan ezik, hori erlojua geratuta jokatu da baita. Hutsarteetan gelditu egingo da erlojua.

Arbitroak ezin du inoiz baloirik ukitu baloia jokoan jartzeko, falta pertsonalen ondoren salbu. Gainerako joko egoeretan (urratsen araua haustea, eremuarena, alboz kanpoak eta abar), arbitroak ez du baloirik ukitu beharko.

Haurrak 1. urtea (haur aurrekoa)

Partidak bi zati izango ditu eta zati bakoitzak zortzi minutuko hiru seiren. Seirenen artean minutu bateko atsedena izango da eta zatien artean, gehienez, bost minutukoa. Partida denbora jarraituan jokatu da, 6. zatiko azken minutua izan ezik, hori erlojua geratuta jokatu da baita. Hutsarteetan gelditu egingo da erlojua.

Arbitroak ezin du inoiz baloirik ukitu baloia jokoan jartzeko, falta pertsonalen ondoren salbu. Gainerako joko egoeretan (urratsen araua haustea, eremuarena, alboz kanpoak eta abar), arbitroak ez du baloirik ukitu beharko.

Haurrak 2. urtea

Partida bi erditan banatzen da. Horietako bakoitza 10 minutuko bi zatitan banatzen da; horien artean, 2 minutuko atsedena egingo da, eta bi partida erdien artean 10 minutukoa.

Arbitroak ezin du inoiz baloirik ukitu baloia jokoan jartzeko, falta pertsonalen ondoren salbu. Gainerako joko egoeretan (urratsen araua haustea, eremuarena, alboz kanpoak eta abar), arbitroak ez du baloirik ukitu beharko.

Kadeteak

FIBA araudia, salbu eta 5 minutuko atsedendia bigarren eta hirugarren zatien artean.

8. - JOKALARIAK ALDATZEA

Benjamin eta kadete kategorietan nahi beste aldaketa egin daitezke.

Kimuak 1. eta 2. urteen kategorietan, partidaren azken zatian baino ezin izango dira egin aldaketak. Gainerako zatietan lesionatutako, deskalifikatutako edo 5 falta egin dituen jokalaria baino ezin izango da aldatu. Aurreko 3 arrazoi horietako batengatik jokalekua uzten duen jokalariaren kasuan, zati osoa jokatu duela onartuko zaio. Aurreko jokalariaren ordezkari den jokalariaren kasuan, jokaturako denbora ez zaio zati osotzat hartuko, gutxienez jokatu beharreko denborarako, bai, ordea, gehienez jokatu beharrerako.

Lesioetan laguntza jasoz gero ez dago jokalaria aldatzeko betebeharririk, betiere jokoa ez bada bi minutu baino gehiagoz eteten.

Jokalari guztiek ordezkoen aulkian gutxienez zati oso batez egon behar dute, lehenengo hiru edo bost zatietan, kategoriaren arabera, kimuen 1. urteko kategoriaren salbuespenarekin. Zati osoa zatia hasten denetik amaitzen den artekoa da, salbuespenik gabe.

Haurren 1. urteko kategorian (haur aurrekoa), ordezkapenak egin daitezke 6. seirenean, jokatzeko berariazko baldintzak beteta, eta bi seiren osotan atsedean hartu lehenengo bost seirenetan (8 jokalaria aktan inskribatzen dituzten taldeetan izan ezik, horietan bi seirenetan atsedean hartu behar baita 6 seirenetako edozeinetan).

Haurren 2. urteko kategorian, ordezkapenak egin ahal izango dira 3. eta 4. seirenetan, baldin eta ordezkaturako kirolariak jokaturako lehen hiru seirenen barruan egon badira aulkian seiren oso bat ('Pasarela' araudia).

Arau hori betetzen ez duen taldeari partida galdutzat emango zaio, hamar eta hutseko emaitzaz. Hala ere, partidaren markagailuko aldea handiagoa bada, hori hartuko da kontuan, baldin eta irabazlea araua hautsi duen taldea ez bada.

Benjaminak 3x3

- Jokalari guztiek jokatu behar dute lehenengo hiru laurdenetakoren batean.
- Laurden guztietan egin daitezke aldaketak.

Kimuak / Haurrak 1. urtea

- Lehenengo 5 zatietan:
 - 2 zati oso jokatu behar ditu gutxienez.
(salbuespena: Kimuak 4x4, 11 edo 12 kirolariko taldeekin).
 - 2 zati oso deskantsatu behar ditu gutxienez.

- Partida osoan:
 - 4 zati oso jokatu behar ditu gehienez.

Haurrak 2. urtea

- Lehenengo 3 zatietan:
 - Zati oso 1 jokatu behar du gutxienez.
 - Zati oso 1 deskantsatu behar du gutxienez.
- Partida osoan
 - 3 zati oso jokatu behar ditu gehienez.
 - 3. eta 4. zatietan ordezkatzeari, 'Pasarela' araudia beteta.

Kadeteak

- Ez dago gutxienez eta gehienez jokatu beharreko denborarik, baina jokalariek guztiek parte hartu behar dute partidari.
- Partida bakoitzaren aktan talde bakoitzeko 8 kirolari inskribatu behar dira gutxienez.

9. - HIRU PUNTUKO MARRA

Benjaminak

Ez dago.

Kimuak

Hiru puntuko marra ezarri da, ondoren azaltzen den bezala markatuta: hondoko marrarekiko paralelo den marra, hartatik 4 metrora, eta 8 metroko luzerakoa, bere erdi puntua uztaia zentroaren luzapenak sortzen duen irudimenezko marran duena. Baita bi marra paralelok lotuko dute pintatutako marra berria hondoko marrarekin ere. Hiruko marrarik ez badago, ez da hiruko saskiratzerik egongo.

Haurrak eta kadeteak

FIBAren arautegiak dakarrena beteko da.

10. - TALDE FALTAK

Talde batek zati batean 4 falta egiten baditu, falta pertsonalak eta falta teknikoak batuta, talde hori bosgarren faltatik aurrera bi jaurtiketaz zigortuko da.

Benjaminak 3x3

Jokalariren batek lau falta egiten baditu laurden batean, ordezkaturik izango da. Gainontzeko laurdenetan jokatu ahal izango du, ordea.

Talderen batek lau falta egiten baditu laurden batean, hortik gorako faltako jaurtiketa libre bana izango du beste taldeak.

Jaurtitzaileri falta egiten bazaio, jaurtiketa libre bat izango du. Kiroltasunaren kontrako jardunak partida bertan behera uztea ekarriko du.



11. - DEFENTSAK

Benjaminak 3x3

Banakako defentsa baino ez da onartzen. Beste zernahi defentsa arauz kontrakoa da, eta egiten duen taldeko entrenatzaileari falta teknikoa adieraziko zaio. Ez dira onartzen defentsa laguntzak, ez eta bi baten aurkako egoerarik edo triangelu defentsarik ere ez.

Kimuak

Edozein zona defentsa (mistoa barne) arauz kontraktzat joko da eta hori egiten duen taldeko entrenatzaileari falta teknikoa seinalatuz zigortuko da. Banakako defentsak egin daitezke jokaleku osoan.

Haurrak eta kadeteak

Mota guztietako defentsak egin daitezke.

12. - 3, 5, 8, 14 eta 24 SEGUNDOEN ARAUAK

Benjaminak 3x3

Ez zaie aplikatzen.

Kimuak

Eremuko 3 segundoko, sakeko 5 segundoko eta jokaleku erdia pasatzeko 8 segundoko araudiak aplikatzen dira. Ez dira aplikatzen 14 eta 24 segundoko arauak (pasibotasuna).

Haurrak eta kadeteak

FIBA araudia aplikatzen zaie.

13. - HUTSARTEAK

Partida denbora jarraituan jokatzeko arren, hutsarteak daudenean erlojua geratu egingo da.

Benjaminak 3x3

Laurden bakoitzeko 6. minutuan 30 segundoko hutsarte bat egingo da aldaketak egiteko.

Kimuak / Haurrak 1. urtea

Partida bakoitzean hiru (3) hutsarte izango dira; bat lehenengo hiru zatietan eta beste biak azken hiruretan. Ezin dira bi hutsarte eskatu azken zatian.

Haurrak 2. urtea eta kadeteak

FIBAren arautegia beteko da; beraz, 5 hutsarte izango dira.



14. - MARKAGAILUAN 40 PUNTU BAINO GEHIAGOKO ALDEA

Partida bat jokatzeko talde batek markagailuan 40 puntuko alde ateratzen badiu besteri, partida bukatutzat joko da, une horretan akta ofizialean jasotzen den emaitza. Geratzen diren minutuetan beste partida bati ekingo zaio, aktan eta sailkapenean inolako eraginik izan gabe, baina falta deskalkifikatzailearen bat egonez gero, aktan jaso egingo da eta Lehiaketa Batzordeari horren berri emango zaio. Faltak zenbatzen jarraituko dira.

15. - AKTAK ETA PARTIDETAKO EMAITZAK

Aktetan behar diren datuak adierazi behar dira: kategoria, taldeak, emaitzak. Harmailetan ohiz kanpoko zerbait edo zelaian kiroltasunaren kontrako zerbait gertatuz gero, partidako arbitroak eman behar du gertatutakoaren berri aktan.

Kategoria bakoitzean berari dagokion akta ereduak erabiliko da. Partiden emaitzak, benjamin kategoriakoak ez beste guztienak (gorabeherarik egon ezean), Arabako Saskibaloia Federazioari jakinarazi beharko dizkio etxeko taldeak partida jokatu ondoko lehen **egun balioduneko goizeko 10:00ak baino lehen**.

Emaitzen jakinarazpenak emailez egin behar dira, mezua helbide honetara bidalita: federacion@basketaraba.com. **Izenburuan partida, kategoria eta emaitza** idatzi behar dira. Partidan gorabeheraren bat izan bada, horren berri ematen duen aktaren atzealdearen argazkia erantsi behar zaio mezuari. Txostena partidako arbitroak idatzi behar du.

Jatorrizko akta etxeko taldeak gorde behar du denboraldi osoan, berrikusteko eskatuko baliote ere.

Erreklamazioen bat eginez gero, hura eragiten duenari buruzko txostena zehatza aurkeztu behar da partida jokatu ondoko **bigarren egun balioduneko 14:00ak baino lehen**.

Lizentziaren bat aurkezten ez bada, horren berri eman beharko da aktan (atzealdean) edo txostenean, diziplina erantzukizunik dagoen ala ez erabakitzeko. Nolanahi ere, proba jokatu beharko da, ezohiko inguruabarren bat gertatu ezean (hala bada, frogatu egin beharko da).

Etxeko taldeak emaitzaren berri ematen ez badu, talde hori honela zigortuko da:

- a) Lehenengo aldia: partida hamar eta hutseko emaitzaz galtzea. Partidako emaitzan alde handiagoa izanez gero, emaitza hori hartuko da, baldin eta irabazlea kanpoko taldea bada.
- b) Ondorengoaldiak lehiaketa berean: partida bi eta hutseko emaitzaz galtzea. Partidako emaitzan alde handiagoa izanez gero, emaitza hori hartuko da, baldin eta irabazlea kanpoko taldea ba. Eta sailkapen orokorrean puntu bat kenduko zaio.



Lehen egun baliouduneko 13:00etarako emaitzak argitaratu eta sailkapenak eratu ondoren EZ da onartutako atzerapenik partidaren emaitzak jakinarazten, ezohiko arrazoiren bategatik izan ezean (frogatu egin beharko da).

16. - ARAUZ KONTRAKO JOKALARI ZERRENDA

Ez dago onartuta kirolariak parte hartzea inskribatuta dauden taldearen kategoriatik gorako kategorietako erakunde bereko taldeetan, ez partida batean, ez modu iraunkorrean.

Talde batek jokalaria bat arauz kontra edo modu okerrean sartzen badu jokalaria zerrendan partida bat jokatzeke, galdutzat emango zaio partida hamar eta hutseko emaitzaz. Partidako emaitzan alde handiagoa izanez gero, emaitza hori hartuko da, baldin eta talde irabazlea araua hautsi duena ez bada.

Jokalaria bat jokalarien zerrendan arauz kontra sartzearen zergatia administrazio arau bat ez betetzea baldin bada, hala nola, lizentzia modu egokian bideratu ez izatea, gorago azaldutako baldintzetan partida galtzeaz gainera, sailkapen orokorrean bi puntu kenduta zigortuko da taldea.

17. - PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Kirol lehiaketetan inskribatutako kirol erakundeek programatutako lehiaketa guztietan parte hartu beharko dute, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Partida batera joaten ez bada, absentzia federazio antolatzaileari jakinarazi beharko zaio behar besteko aurrerapenaz, ezinbestezko kausa izan ezik azken momentuan, horiek egiaztatu egin beharko baitira. Era berean, eragindako erakundeari jakinarazi beharko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzerara agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez agertzea: partida hamar eta bateko emaitzaz galtzea.
- b) Bigarren ez agertzea lehiaketa berean: partida hamar eta hutseko emaitzaz galtzea eta sailkapen orokorrean puntu bat kentzea.
- c) Izan litzakeen eskubide guztiak galtzea, lehiaketatik deskalifikatuta. Hala ere, kontrako taldea ados baldin badago, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe.
- d) Partida batera justifikaziorik gabe ez agertzea erakundearen arau hauste larritzat jotzen da eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan, eta, aurrekoez gain, aipatutako dekretuaren 17. artikuluan ezarritako edozein zehapen ezarri ahal izango da.

- e) Saillkapenean berdinketarik badago, inoiz agertu ez diren taldeak atzean geratuko dira saillkapenean.

Talde bat partida jokatzen hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batekin azaltzen baldin bada, azaldu gabekotzat joko da eta dagozkion zigorrak jarriko zaizkio. Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak saillkapen orokorretik ezabatuko dira.

18. - FEDERAZIOKO ORDEZKARIAK

Arabako Saskibaloio Federazioak, bere ekimenez, ordezkariak izendatu ahal izango ditu araudi hau eta eskola kirolaren helburuak betetzen diren ala ez egiaztatzeko, eta bidezkotzat jotzen duen guztietan ere bai. Ordezkari horiek eskola kiroleko saskibaloiko indarreko araudiaren berri jakingo dute. Denboraldi bakoitzaren hasieran ASFk emailez jakinaraziko du nortzuk diren eskola kiroleko saskibaloiko lehiaketei buruzko txostenak egiteko izendatutako pertsonak, horretarako gaituta daudenak eta Arabako Foru Aldundiaren baimena dutenak

Era berean, lehiaketetan parte hartzen duten erakundeek Arabako Saskibaloio Federazioari federazio-ordezkari bat izendatzeko eskatu ahal izango diote. Eskerak bidezkotzat jotzen direnean eta posible denean erantzungo dira. Ez dute horri lotutako kostu ekonomikorik izango.

Federazioaren ordezkaria partida hasteko ezarritako ordu ofiziala baino ordu erdi lehenago aurkeztuko da joko-zelaian, eta arbitraje-taldearen eta taldeetako entrenatzaileen aurrean egiaztatuko da. Partida osoan zehar egon beharko du joko-esparruan, eta, behar izanez gero, ondoren. Topaketak irauten duen bitartean, ez da idazleen mahaia izango.

Federazioko ordezkariaren eginkizunak izango dira:

- a. Eskola-saskibaloiko modalitatearen berriazko araudia betetzen dutela egiaztatzea, bai parte hartzen duten taldeek, bai arbitraje-taldeak.
- b. "Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa" betetzen dela egiaztatzea. Beharrezkoa izanez gero, arbitroari protokoloa aplikatzeko eskatuz esku hartu ahal izango du.
- c. Topaketaren aurretik, bitartean eta ondoren erregistratutako gorabeherei buruzko txostena egitea. Txostena Arabako Saskibaloio Federazioaren esku egongo da eta, hala badagokio, Arabako Federazioaren Diziiplina Batzordean, partida jokatu eta hurrengo 48 orduetan.

Federazioko ordezkariak ezingo ditu arbitroen eginkizunak oztopatu, artikuluko honetako b idatz-zatian aipatutako protokoloa aplikatzea eskatu behar ez badie behintzat.



19. - JOKALEKUA ESKATZEA

Arabako Saskibaloï Federazioari jokalekua erabiltzeko baimena eskatu behar zaionean, partida jokatzeko, gutxienez 15 egun lehenago eskatu beharko zaio.

Eskaera guztiak bete ezin badira, instalazio propioerik ez duten kirol erakundeek izango dute lehentasuna.

20. - KIROL INSTALAZIOAK

Kirol lehiaketak edo jarduerak egiten diren kirol instalazioetan aldagelak erabilgarri egotea bermatu behar da. Gainera, trans kirolariei bermatu behar zaie askatasunez sentitzen duten sexuaren edo generoaren instalazioak erabili ahal izatea.

21. - PARTIDEN ORDUA

Partidaren ordutegia federazioko aplikazioan ipini beharko da (extranet.basketaraba.com). Etxean jokatzeko duen taldeak, nahitaez, partida jokatu den orduaren eta lekua berri eman beharko dio Federazioari, partida hori jokatu aurreko IGANDEko 23:59ak baino lehen. Nolanahi ere, ordutegiak argitaratu ondoren edozein aldaketa egiteko, beste taldearen adostasuna beharko da nahitaez. Partida jokatzeko ordua eta lekua jakinarazten ez bada, etxean jokatzeko duen taldeari partida galdutzat emango zaio, zigor modura.

Larunbateko 9:00etatik 13:30era bitartean izango da lehiaketa jardunaldia, partidak hasteko gehieneko ordutegi gisa.

Taldeetako bat joan-etorrian ibili behar den partidak 10:30 - 12:30 tartean jokatu behar dira. Salbuespen gisa, eta soilik kirol instalazio batean ordu tarte hori osorik betetzen bada talderen bat joan-etorrian ibili behar den partidekin, partidak 9:30 - 13:00 bitartean jokatu ahal izango dira, benjamin kategorian izan ezik.

Ez da beharko ASFren baimena, ez eta AFArena ere, salbuespena aplikatzeko; alabaina, ezarritako baldintzak bete gabe aplikatzen bada, diziplina zehapena ezarriko zaio partidaren ordua finkatu duen erakundeari.

Larunbat arratsaldeetan, haurren eta kadeteen kategorietako partidak 16:00 - 18:00 artean jokatu daitezke. Taldeetako bat joan-etorrian ibili behar den partidak 16:30 - 18:00 tartean jokatu behar dira.

Partida bat jokatu behar duten bi taldeek adosten badute partida egun eta ordu batean jokatzeko, nahiz eta arau hauekin bat ez etorri, partida jokatu ahal izango dute, abisua emailaz bidali ondoren: federacion@basketaraba.com.

22. - PARTIDEN ORDUA ALDATZEA

Orduz aldatu nahi duen taldeak jakinarazi beharko dio nahitaez Federazioari. Hala ere, ez da orduz aldatuko kontrako taldearen adostasunik gabe. Gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko zaio jakinarazpena kontrako taldeari. Adostasunik izan ezean, eta partida beste ordu horretan jokatuz gero, ordua aldatu zuen taldeari partida galdutzat emango zaio.

23. - LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Ezinbesteko kausengatik baino ezingo da aldatu lehiaketak egitea. Hala gertatzen denean, kasuan kasuko entitate laguntzaileei, **Arabako Saskibaloï Federazioari eta AFAko Eskola Kirolari**, idatziz eskatu behar zaie, behar besteko aurrerapenez, aurkariaren adostasuna ere frogatuz eta partida zein egunetan, ordutan eta tokitan jokatuko den zehaztuz.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez agertzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

Egun aldaketak eragiten dituen gastuak (joan-etorriak, instalazioak, etab.) aldaketa eskatu duen taldeak ordaindu beharko ditu.

24. - ESKOLAKO AZKEN FASEAK ANTOLATZEKO ESKAERAK

Entitateek eta beste organismo batzuek FABen bidez eskatu ahal izango dute 2025-26 denboraldian egiten diren lehiaketen azken fase bat edo batzuk antolatzeko.

Horretarako, eskaera bat bidali beharko dute 15 eguneko aurrerapenarekin, beharrezko baldintzen arabera. Balioesteko irizpideak izango dira kirol sailkapena eta instalazioak, hurrenkera horretan.

Epe barruan jasotako eskabideen artean, federazio horrek izendatuko du nor izango den antolatzailea.

Fase horietako edozein antolatu ahal izateko, jokalekuak estaliak eta itxiak izan beharko dira, eta markagailua, erloju kronometroa eta kirolarientzako eta arbitro taldearentzako aldagelak ere bai.

25. - BORONDATEZKO ASEGURUA

Eskola Kiroleko kanpainan parte hartzen duten ikasle guztiak babesten dituen aseguru bat badago ere (9. art.), kategoria horietan izena ematen dutenek Arabako Saskibaloï Federazioak eskaintzen dien asistentzia aseguru ere egin dezakete borondatez.



26. - AZKEN XEDAPENA

Benjamin eta kimuen kategorietan, joko arauak hertsiki aplikatzea gomendatzen da indarkeriazko edo kiroltasunaren kontrako portaerekin loturiko arlo guztietan. Alderdi teknikoei edo erregelei dagokienez, berriz, esku zabalagoa izatea gomendatzen da, lehiaketa hutsezko irizpideak baino gehiago irizpide pedagogikoak erabiliz.

27. - DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola Kiroleko Lehiaketen Diziiplina Araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA aplikatuko da.

Erakundeei zehapena ezarri ahal izango zaie lotutako pertsona fisiko batek diziiplina araudiko arauen bat hausten duenean. Honako hauek dira erakundeei lotutako pertsona fisikoak: erakundearekin eskola lizentzia duten pertsonak edo haien senideak, erakundearekin harreman juridikoren bat (lanekoa, boluntariotzakoa edo beste izaera batekoa) duten pertsonak, erakundeko organoetako kideak, erakundeko bazkideak eta erakundearekin zalantzarik gabe lotu daitezkeen ikusleak. Zehapena hauetako bat izango da: puntuak galtzea, partida galtzea, sailkapeneko postua galtzea edo eskola kiroleko lehiaketen diziiplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUaren 17. artikuluan ezartzen den besteren bat.

28. - HARMAILETAN ERRESPETUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

Eskola-kirola hezkuntza-, bizikidetza- eta errespetu-iturri izan dadin, "Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko jarduera-protokoloa" aplikatuko da lehiaketa guztietan.

ARAUTEGI HONETAN JASOTZEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK SASKIBALOIKO BATZORDE NAZIONALAREN ETA ARABAKO SASKIBALOI FEDERAZIOAREN ARAUDI OROKORRAREN JOKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO DIRA



BENJAMINAK	
Adinak	2016an jaiioak (2. urtea) – 2017an jaiioak (1. urtea)
Joko denbora	12 minutu 4 aldi,erlojua eten gabe, beti.
Denboraren kontrola	Denbora jarraitua
Baloia	5 tamaina
5, 8, 14 eta 24 segundoak	Ez (pasibotasuna)
Talde faltak eta jaurtitzaileri faltak Bonus (4 falta zatiko)	Jaurtiketa libre 1
Hiru puntuko saskiratzea	Ez
Baimendutako defentsak	Banakakoa
Baimenduta ez dauden defentsak	Defentsa zona (triangelua). Defentsa mistoa. 2x1eko edozein egoera.
Aktan izena emandako jokalariai	Jokalaria guztiek jokatu behar dute lehenengo hiru laurdenetakoren batean. Laurden guztietan egin daitezke aldaketak.
Hutsarteak	30 segundoko hutsarte bat, zati bakoitzean, aldaketak egiteko. Gelditu egingo da erlojua.
Partidaren hasiera	Bikote bakoitzak jaurtiketa libreetan lortutako emaitzaren arabera egingo da.
Jokatzeko era	Talde batek baloia berreskuratzen duen bakoitzean, kirolari guztiek taldeak eremutik irten beharko dute erasoan hasi baino lehen. Erasoko errebotea hartuz gero, ez da eremutik irten behar izango berriro erasotzeko. Saskiratzeen ondoren, jokaleku erdiko zirkulutik aterako da beti. Lehenengo pasea librea da beti. Falta eta arau hausteen ondorengo sarea falta edo arau haustea gertatu den lekutik hurbilen dagoen puntutik egingo da. Hondoko sarea, lehenengo pasea zonatik kanpo egingo da beti. Lehenengo pasea librea da beti.
3 segundoko eremua	3 segundoko EREMUA dago



KIMUAK (1. URTEA) 4X4	
Adinak	Kimuak, 1. urtea: 2015ean jaiok.
Joko denbora	Zortzi minutuko 6 zati
Denboraren kontrola	Denbora jarraitua, azken zatiko azken minutua izan ezik
Baloia	5 tamaina
5 eta 8 segundoko arauak	Bai
14 eta 24 segundoko arauak	Ez (pasibotasuna)
Talde faltak Bonus (4 falta zatiko)	2 jaurtiketa libre
Hiru puntuko saskiratzea	Bai, hondoko marratik 4 metrora dagoen marratik lortutako saskiratzea.
Baimendutako defentsak	Banakakoa jokaleku osoan
Baimenduta ez dauden defentsak	Presio defentsak Zona defentsak Defentsa mistoak 2x1eko edozein egoera
Aktan izena emandako jokalaria	Gutxienez: jokatu / atsedena hartu 2 zati osorik, lehen 5 zatietan. Salbuespena: 11 edo 12 kirolariko taldeak. Gehienez: jokatu 4 zati, partida osoan. 6. zatian baino ezin izango da aldaketarik egin.
Hutsarteak	Hiru (3): bat lehenengo hiru zatietan eta beste biak azken hiru zatietan. Ezin dira bi hutsarte eskatu azken zatian. Gelditu egingo da erlojua.
Biren arteko jauzia	Hasierako jauzia baino ez dago. Gero, baloi jabetza txandaka egingo da.
Puntuen aldea	Joko zatien tanto kopurua izango da puntu bat batzea irabazitako zati bakoitzeko. Ekipo batek 4-0eko partziala lortzen badu, amaitutzat emango da tanto kopurua. Partidak jokatzen jarraituko du arauzko denbora bete arte. Ez da punturik eta faltarik idatziko aktan, falta deskalifikatzaileak eta aparteko egoerak izan ezik.
3 segundoko eremua	BAI



KIMUAK (2. urtea)	
Adinak	Kimuak, 2. urtea: 2014an jaiok.
Joko denbora	Zortzi minutuko 6 zati.
Denboraren kontrola	Denbora jarraitua, azken zatiko azken minutua izan ezik.
Baloia	5 tamaina (kimuak)
5 eta 8 segundoko arauak	Bai
14 eta 24 segundoko arauak	Ez (pasibotasuna)
Talde faltak Bonus (4 falta zatiko)	2 jaurtiketa libre
Hiru puntuko saskiratzea	Bai, hondoko marratik 4 metrora dagoen marratik lortutako saskiratzea.
Baimendutako defentsak	Banakakoa jokaleku osoan
Baimenduta ez dauden defentsak	Presio defentsak Zona defentsak Defentsa mistoak 2x1eko edozein egoera
Aktan izena emandako jokalaria	Gutxienez: jokatu / atsedena hartu 2 zati osorik, lehen 5 zatietan. Gehienez: jokatu 4 zati, partida osoan. 6. zatian baino ezin izango da aldaketarik egin.
Hutsarteak	Hiru (3): bat lehenengo hiru zatietan eta beste biak azken hiru zatietan. Ezin dira bi hutsarte eskatu azken zatian. Gelditu egingo da erlojua.
Biren arteko jauzia	Hasierako jauzia baino ez dago. Gero, baloi jabetza txandaka egingo da.
40 puntuko aldea	Partida bat jokatzean talde batek markagailuan 40 puntuko edo gehiagoko aldea ateratzen badio besteari, partida bukatutzat joko da, une horretan akta ofizialean jasotzen den emaitzaz. Geratzen diren minutuetan beste partida bati ekingo zaio, eta ez da aktan jasoko, falta deskalifikatzailezik ez bada.
3 segundoko eremua	BAI



HAURRAK 1. URTEA	
Adinak	2013an jaioak
Joko denbora	Zortzi minutuko 6 zati.
Denboraren kontrola	Partida denbora jarraituan jokatu da, zati bakoitzeko azken minutua izan ezik, hori erlojua geratuta jokatu baita. Erlojua hutsarteetan geratu egingo da.
Baloia	Mutilak: 6 tamaina (ertaina) Neskak: 6 tamaina (ertaina)
5, 8, 14 eta 24 segundoak	Bai
Talde faltak Bonus (4 falta zatiko)	2 jaurtiketa libre
Hiru puntuko saskiratzea	Bai
Baimendutako defentsak	Denak
Aktan izena emandako jokalaria	Gutxienez: jokatu / atsedena hartu 2 zati osorik, lehen 6 zatietan. Gehienez: jokatu 4 zati, partida osoan. 6. zatian baino ezin izango da aldaketarik egin.
Hutsarteak	Hiru (3): bat lehenengo hiru zatietan eta beste biak azken hiru zatietan. Ezin dira bi hutsarte eskatu azken zatian. Gelditu egingo da erlojua.
Biren arteko jauzia	Hasierako jauzia baino ez dago. Gero, baloi jabetza txandaka egingo da.
40 puntuko aldea	Partida bat jokatzeko talde batek markagailuan 40 puntuko edo gehiagoko aldea ateratzen badiu besteari, partida bukatutzat joko da, une horretan akta ofizialean jasotzen den emaitzaz. Geratzen diren minutuetan beste partida bati ekingo zaio, eta ez da aktan jasoko, falta deskalifikatzailezik ez bada.
3 segundoko eremua	BAI



HAURRAK 2. URTEA	
Adinak	2012an jaioak
Joko denbora	10 minutuko 4 zati
Denboraren kontrola	Partida denbora jarraituan jokatu da, zati bakoitzeko azken bi minutuak izan ezik, hori erlojua geratuta jokatu da. Erlojua hutsarteetan geratu egingo da.
Baloia	Mutilak: 7 tamaina (normala) Neskak: 6 tamaina (ertaina)
5, 8, 14 eta 24 segundoak	Bai
Talde faltak Bonus (4 falta zatiko)	2 jaurtiketa libre
Hiru puntuko saskiratzea	Bai
Baimendutako defentsak	Denak
Aktan izena emandako jokalaria	Gutxienez: jokatu / atsedena hartu zati 1 osorik, lehen 3 zatietan. Gehienez: jokatu 3 zati, partida osoan. 3. eta 4. zatietan egin ahalko dira aldaketak.
Hutsarteak	Bost (2+3): FIBAren arautegia. Gelditu egingo da erlojua.
Biren arteko jauzia	Hasierako jauzia baino ez dago. Gero, baloi jabetza txandaka egingo da.
40 puntuko aldea	Partida bat jokatzeko talde batek markagailuan 40 puntuko edo gehiagoko aldea ateratzen badiu besteari, partida bukatutzat joko da, une horretan akta ofizialean jasotzen den emaitzaz. Geratzen diren minutuetan beste partida bati ekingo zaio, eta ez da aktan jasoko, falta deskalifikatzailezik ez bada.
3 segundoko eremua	BAI



KADETEAK	
Adinak	2010ean eta 2011n jaioak
Joko denbora	10 minutuko 4 zati
Denboraren kontrola	Erlojua geratuta. Minutu bateko atsedenaldia, $\frac{1}{2}$ eta $\frac{3}{4}$ en arteko azpialdien artean. Bost minutuko atsedenaldia, 2. eta 3. aldien artean.
Baloia	Mutilak: normala Neskak: ertaina
5, 8, 14 eta 24 segundoak	Bai
Talde faltak Bonus (4 falta zatiko)	2 jaurtiketa libre
Hiru puntuko saskiratzea	Bai
Baimendutako defentsak	Denak
Aktan inskribatutako jokalaria	Partida bakoitzerako talde bakoitzak 8 kirolari inskribatu behar ditu gutxienez. Kirolari guztiek jokatu behar dute, baina ez dago ez gutxienerako denborarik, ez gehienekorik
Hutsarteak	Bost (5): FIBAren arautegia.
Biren arteko jauzia	Hasierako jauzia baino ez dago. Gero, baloi jabetza txandaka egingo da.
40 puntuko aldea	Partida bat jokatzeko talde batek markagailuan 40 puntuko edo gehiagoko aldea ateratzen badiu besteari, partida bukatutzat joko da, une horretan akta ofizialean jasotzen den emaitzaz. Geratzen diren minutuetan beste partida bati ekingo zaio, eta ez da aktan jasoko, falta deskalifikatzailezik ez bada.
3 segundoko eremua	BAI